

{gastronomiaren antropologia}

Udaberriaren etorrera inork baino gehiago jarraitu eta sentitzen du erlezainak. Negutzea lasai antzera egiten dute, zuhaitzen tankeran. Deskantsua eta prestaketak: erlauntzak margotu, sutarako egurra egin... Naturaren loratze horren zain egoten dira, garai honen bueltan. «Erleak beti lotzen zaitu naturara: sahatza nola dator, atxikoria hasi da loretan, gaztaina zuhaitzak non daude... Nik mila buelta eman ditut hemen, inguruan. Eta hala, badakit baso hori loratzen dela garai honetan, bestea beranduxea-go...». Eladi Balerdi (Tolosa, 1972) erlezainarekin berriketan ari naiz, Amezketako “Azkonita” proiektuan.

Loreak ez dira energia emozional bat soilik, erlezainaren ogibidearen oinarri ere badira. Zuhaitzen inguruko ikasketak prozesua da erlezaintza, eta egural-

dia azalean bizitzea. Eguraldiak erleen jardunean eragiten du, eguzkiaren goxoa gustura hartzen dute, pertsona askok bezala. Bai, erleak sumatzen du gorputzean zein eguraldi datorren, eta txarrarekin erlauntzean babestuko da. Erleekin bizi denak zerura asko begiratu du, eta inguruko loreak gehien preziatuko dituen da.

Erlezainaren lana erlea zaintzea da, erleak ahalik eta gusturen eta osasuntsuen egotea. Lantokia utzi eta erlezaintzan hasi zen Balerdi, duela ia 20 urte. Bakarra da erlezaintzatik bizi dena Gipuzkoan, erlauntzak mugitu gabe. Ez da bide erraza izan, baina gustura dago egindako bidearekin: «Ezingo nuke fabrikara itzuli, naturarekin dudan kontaktu hau utzi...», irribarrea egin eta beherantz begiratzen du, horretan pentsatu nahiko ez balu bezala.

Asentatu da jada, bezero fidelak ditu, produktua baloratzen dutenak. Ezti-az



Josu OZAITA Antropologoa

Erleen airea arnasten

gain, propolia, polena, erle ogia, erregina jalea...

«Zer eman dizu erle munduak, Eladi?», egin diogu galdera. «Bizimodu bat. Erletara joaten zarenean, erlauntz bat irekitzean, bakean zaude. Lan askorekin estresa ere izaten da, baina erle lanak asko erlaxatzen du, kontrari. Erlauntza batean beste mundu paralelo bat dago, eta hor sartzen zarenean, burutik beste gauza guztiak joan egiten dira. Erleek eragiten dute ondo sentitzea. Eskalatzen ere berdina gertatzen da: hor zentratzen zara, burua garbitu bezala egiten zaizu, ezin duzu beste zerbaitetan pentsatu. Edo irakurtzerakoan ere bai... Erleek ere badute zera hori».

Gizakien abiadura ezin da sartu erlauntzean, eta pertsona beraien denboretara behartzen dute. Eguna luzatzeak, eguzki izpiek, loraldiek... erle eta erlezainaren gainetik, naturak bere erritmoa ezartzen du. Potentzia da inguruarekin sortzen den harremana.

ERLEEN AIREA EZ DA HUTSA

Behin proiektua asentatuta, beste abentura batean sartu da, erleen mundutik atera gabe, edo, erleen munduan jendea gehiago barneratzeko.

Airea hutsunea da, baina betea dagoena. Bazkide batekin batera, “Erlauntzeko airea” proiektuari bizi eman dio: erleterapia jardura, erleen airea oinarritzat duena, Ikaztegiatako belaze batean. Erlauntzetako airea arnasteko aukera eskaintzen dute, zuzenean hodi batetik, erlauntzetik gure biriketara, edo sei erlauntz dituen sauna, haien bero, musika eta aireak gure gorputzetan eragiteko.

«Arratsalde on!», Jose Manuel Atxaga (Zizurkil, 1932) bazkideak agurtu nau, bi etxola dauden belazean. Bostekoa eman eta honakoa bota dit: «Duela denbora bat ez nizuke eskua emango, artikulazio arazoak nituelako. Erleen ziztadei esker,



Irudian Jose Manuel Atxaga eta Eladi Balerdi, erleterapiaren aldeko apustua egin duten bazkideak. Josu OZAITA

indarra hartu dut».

Azken urteotan, liluratuta dago erleen munduarekin. Fedetik haratago, praktikan eta gorputzean sentitu ditu erleen lanetik eratorritako produktuen onurak. «Bista galtzen ari nintzen, eta azken errebisioan, sendagilea urduri sentitu nuen, hara eta hona: zera bota zidan: Zer gauza berezi ari zara egiten? Zein da sekretua? Ikusmena hobetu zaizu», irribarre batekin kontatzen du, begi urdinetan ilusio dirdira duela. Ez daki zein den sekretua; badaki, ordea, erleen produktuek eragiten diotela. «Propolia urtaro aldaketarekin hartzen dut, eztia maiz jan. Benetako erregina jalea sekulakoa da, zelula guztiak aktibatzen dizkizu, sexurako ere bai...». Arin ditu 93 urteak bizkar gainean, eta ametsak dira bere elikagai aurrea egiteko. Hala ere, beti izan da saltsero hutsa. Hainbat enpresa kudeatu ditu, hainbat ekintzaile proiektutan parte hartu du, herrigintzan aritu da... Bizipoza du zainetan, borborka.

Erregina jalea eroatera joanda ezagutu zuen Eladi, eta orduz geroztik, lagun eta proiekturen bateko bidelagun izan dira. Azkena, hauxe, Euskal Herrian bakarra dena. «Duela hiru urte enteratu nintzen Katalunian halako jarduera bat zegoela. Ilobei hotel bat erreserbatzeko esan nien, eta bertan azaldu nintzen. Ondoren, hau sortu dugu, Ela-

di eta biok», 20 urte dituela dirudi berriketan.

Bi etxola, belaze batean. Batean, bi erlauntz eta bi hodi musukoarekin, aulkian patxadan egon eta arnasteko. Ordu erdiko saioa. Bestean, bi etzaleku, eta azpian 6 erlauntza. Erleak, han, betiko martxan, belazeetara joan-etorriak eginez. Erleterapia, erleak lagun. Ez dute harrokerian miraririk saltzen. Beraiek bizi eta ikusi dutena soilik komentatzen dute: parkinsonaren, arnaste arazoan, es-

tresaren, antsietatearen, sasoiko alergien edota lo hartu ezinaren aurkako pizgarria da erleen airea arnastea. Beraien begiekin ikusi dute, adibidez, hizketan lanak zituen eta gurpil aulkian zegoen bezeroaren hobekuntza etengabea, hizketan lasai aritu eta gorputz mugimendua hobetzeraino. Edo bi bastoiekin etortzen zenarena. Bosgarren saioan, makila batekin etorri zen. Hamargarren saioan, deika zen, ea han ahaztu zuen euskarria. Jada ahaztuta, beharra gutxituta. Edo

Bi etxola, belaze batean. Batean, bi erlauntz eta bi hodi musukoarekin, aulkian patxadan egon eta arnasteko. Ordu erdiko saioa. Bestean, bi etzaleku eta azpian sei erlauntz. Erleterapia, erleak lagun

Ez dute harrokerian miraririk saltzen. Beraiek bizi eta ikusi dutena soilik komentatzen dute: parkinsonaren, arnaste arazoan, estresaren, antsietatearen, sasoiko alergien edota lo hartu ezinaren aurkako pizgarria da erleen airea arnastea



Erlauntzen gainean antolatuta dagoen sauna. Josu OZAITA



Erlauntzeko airea arnasteko tokia. Josu OZAITA



Erleen munduan barneratzeko aukera eskaintzen du erleterapiak. Josu OZAITA

asma zuen gazteak nola ez zuen hartu behar izan Ventonil tratamendurik. «Kalterik ez du egiten. Mesede? Bai. Noraino? Ez dakit oraindik», laburbildu du Jose Manuelek.

Hala kontatuta, probatzeko grina sartu zitzaidan. «Nik joan beharra daukat, auto baimena berritzeko azterketa daukat», hordagoa Jose Manuelek, ia mendea egiteko bidean.

MILAKA LORE GORPUTZAREN BARRURA

Eladi Balerdik suabe hitz egiten dit, erleen bizimoduan ez eragiteko. Isiltasuna arau izango da, erleak ez aztoratu eta arnaste horretan kontzentratzeko. Mobilaren debekua duen seinalea eskertu dut, tentazioari atea ixteko.

Musukoa jantzi eta udaberria esnifutzen sentitu dut, milaka lore irudimenean, biriketaraino. Arnasan jarri ditut zentzuak, eta momentu batez, Eladi erlauntzean sentitzen den tankeran egon naiz, parentes batean, buruan nituen lan eta mobidak lurrindu bailiran. Belaze zabalak parean, birikak indartzen ariko balira bezala, eta patxada, aspaldiko partez. Diotenez, kanpoko airearen propietateak ditu, hamarrekin biderkatuta. Osagai desberdinak, odolera zuzenean.

Saunan sartu naiz, oster, azpiko arroparekin soilik. Hala egitea gomendatzen dute, poroetatik ere airea sartzeko. Polen, ezti eta petalo usaina, udaberria zentzumeneekin. Erlauntzaren 35 graduek epeltasuna eragiten dute. Erleen zunburrun, brun-brun... gu-re beldurrak garaituz, sareak igarotzen uzten ez die-



Ikaztegiako belaze batean jarria dago proiektua. Josu OZAITA

Musukoa jantzi eta udaberria esnifutzen sentitu dut, milaka lore irudimenean, biriketaraino. Arnasan jarri ditut zentzuak, eta momentu batez, parentes batean sentitu naiz, buruan nituen kontuak lurrindu bailiran

Jose Miguel Barandiaranek ere jaso zituen erleekin loturiko kontuak, animalia hauekiko errespetua eta haiekin zuten harremana erakusten dutenak: erleei zuka hitz egiten zitzaien, ez hika, errespetuz

nez. Soinu horrekin, erlaxatzen ikasten da denborarekin. Erleen dantza, musika, burrunba. Poroak irekita eta arnasa hartzeko prest. Sudurretik osagaiak, ikusezin, lokartzeko lurrin bat bailitzan.

AIREAREN ELIKAGAIA

Jose Miguel Barandiaranek ere jaso zituen erleekin loturiko kontuak, animalia hauekiko errespetua eta haiekin zuten harremana erakusten dutenak: erleei zuka hitz egiten zitzaien, ez hika, errespetuz. Erlea ez da akabatzen, “hil” baizik, gizakien pareko. Baserri askotan zeuden erlauntzak, ez-tia eta argizaria lortzeko : Zuberoako Liginagan, erleen nagusiaren familia-

ko bat hiltzean, sendi horretako norbait, edo auzoko hurbileko bat, erlauntzera joan eta honela esaten zien erleei: «Jatzar zie [iratzar zaitezte], buruzagia hil zaizie [zaizue]». Horrela, erleek argizari gehiago ekoizten omen dute, hildakoaren ehorzlekuan piztu ahal izateko.

Erleei goxo hitz egiten zaie, zalaparta gabe. Beraien hizkuntzan, *zizizi, xixixi, sisisi*. Eladi ohituta dagoen bezala. «Erlezaintzak badu zerbait lotzen zaituena, eta ezin zarena askatu», laburbildu dit.

«Nondik elikatzen gara? Tripa baka-rrik etortzen zaigu burura. Baina sudurretik ere elikatu gaitezke, airearekin», esan dit lehenago Jose Manuelek.

Eta lo bikain egin dut bart. ().